- Adineko persona asko bizi dira auzoan eta arazo asko ekartzen dizkie irisgarritasun, mendekotasun, zaintza, bakardade... eta erantzuna emateko zerbitzuak ez dira nahikoak.

Haurrak eta gazteria

- Haurtzako, ez dago ekipamendu espezifikorik herrian, baita jolasteko parke gutxi.

Osasuna eta zaintzak

- Udalaren baliabideei buruzko informazioa, osasun mentalarekin eta ongizate emozionalarekin lotuta, ez da herritarrei zabaltzen.
- Irisgarritasun arazoak dituztenentzat: etxez etxeko zerbitzuak ez dira nahikoa eta laguntza teknikoak (orugak...) falta dira.

Elkarguneak

- Auzo-nortasuna eta kidesun-sentimendua zabaltzea falta da, kohesioa bultzatzeko.

Herritarren lehen ekarpenak

“Herritarrek erabilera anitzeko ekipamenduak eta espazio irekien beharra sumatzen dute, non haurrek jolasaren bitartez euren sormena garatzeko aukera izan dezaketen eta, orokorrean, adin tarte ezberdinekoek aisialdirako espazio eta eremu ezberdinak disfrutatu dezaketen.”



ZIRRIBORROA

Hasierako erronkak

1. Hurbileko gizarte-zerbitzuak udalerrri inklusibo batean
2. Emakumeen ahalduntzea eta autonomia
3. Espazio publikoa, herritarren arteko harremanak sustatzeko eta gizarteak partekatzen dituen balioak indartzeko tresna gisa
4. Tolosarren osasun eta ongizate emozionala zaindu

Hasierako proposamenak

Berdintasuna eta aniztasuna

- Sexu eta genero indarkeriaren aurkako I. Udal Protokoloa eguneratu
- Berdintasun plana sortu

Haurrak eta gazteria

- Gazteentzako interesgarriak diren hainbat gairi buruzko informaziorako/komunikaziorako lekua. Hainbat espazio, leku egokiak izan daitezke informazioa jaso, transmititu eta komunikatzeko.
- Udaleku irekiak sortzea: Urte askotan zehar egon den eskaria da. Tolosako haur eta nerabeei zuzendutako eskaintza diseinatu eta abian jarriko da.
- Hirugarren adineko 6 elkartekin mahai bat sortu.

Osasuna eta zaintzak

- Gizarte kalteberetasuna lantzeko proiektua sortu, osakidetza eta ikatetxeekin (prebentzioa, detekzioa...).


Hezkuntza

- Adin guztietarako gizarte-etxe bat eraikitzea.

Lotutako proiektuak

- 2024 • Tolosaten Eskola Irekia – Esperimentazio proiektuak (urtez-urte)
 - Gazteparte: Gipuzkoako 18-30 urte bitarteko gazteen ahotsa, proposamenak eta iritzia entzuteko zubia
 - Arrakala digitala gainditzeko aholkularitza zerbitzuaren kontratazioa
 - Elkarrizketa eta azterketa prozesua 18-25 urteko gazteentzako elkarte gastronomikoak sortzeko
 - Espazio publiko/pribatu autogestionatuaren azterketa
 - Gogoeta prozesua Ongizate emozionalerako laborategi esperimental moduan
- 2025 • Nerabeak, LGTBIQ+, suizidio: Formakuntza (2024) Programazio berria (2024-25) Suizidioa prebenitzeko I. Gida (2025-26)
 - Tolosaren engizate emozionalerako egoera ezagutzeko diagnostiko parte-hartzailea eta zehatza egingo da. 2025 (1. fasea) - 2026 (2.fasea)
 - Hezkidetza programa eskoletan
 - Gogoeta prozesu konpartitua
- 2026 • Erakunde, zerbitzu eta elkarten mapaketaren gida





Garapen ekonomikoa

Alderdi positiboak

Azokak eta hurbileko merkataritza

- Merkataritza da udalerriko ekonomian nagusi, establezimendu-sare zabalaren bitartez, sortzen dituen lanpostu kopuruagatik. Azokak ikurra dira ere ekonomian duten inpaktua eta nekazaritza sektorea lotzen bait du.
- Garaiko eta bertako produktu onak kontsumitzeko zein merkaturatzeko aukera dago larunbateko azokaren bidez, baserritarrak eta kontsumitzaileak elkarlanean jarriz.
- Hainbat dirulaguntza udal eta Eusko Jaurlaritzak eskeinita merkataritza bultzatzeko (Berriz Tolosa, Ekin...)
- 2023ko otsailean onartu zen hiri ekonomia indarberitzeko dirulaguntza programa arautzen duen ordenantzaren aldaketa.
- Tolosa&Co Merkatarien Elkarteko saltokietan, adostu eta hitzartutako lanketari, hitzarmen berriaren bidez, jarraipena eman zaio 2023an.
- Tolosa&Co-k eta Tolosaldea garatzen aholkularitza komertziala, ikastaroak, lan-poltsa, ekitaldiak eta kanpainiak eskeintzen ditu.

Turismoa

- Tolosako merkataritza-guneak ondarea, merkataritza eta ostalaritza batzen ditu betiko komertzioa, moderno eta berritzaileekin batera.
- Udaleko turismo web orriaz gain, Tolosaldeako sare sozialak, oso aktiboak dira.
- Turismo pribatuaren eskaintza ugaria: gastronomia (jatetxeak, elkarteak, erretegiak..) eta ostatuak (oyarbide, karmentxu, bidebide).

Ekoizpen egitura

- 2023tik ostalaritza-jarduerak ezartzeko distantziak arautuak daude.
- Negozioaren topagune ekitaldi eta bilerak antolatzeko aukera duten azpiegiturak daude.

Hobetu beharreko alderdiak

Azokak eta hurbileko merkataritza

- Azken urteetako dekadentzia merkataritza eta hostalaritza aldetik, lokal asko ixten ari dira.
- Kontsumo eredu berriek konpetentzia asko egiten dute eta alokairuen prezioek ez dute laguntzen (Korreos kaleak mantentzen ditu lokal gehienak).
- Saltokietako arduradunen hizkuntza gaitasunari dagokienez, 481 saltokietako arduradunetatik %65 euskaldunak dira, %7a nekez edo gutxi egiten dute euskaraz eta %28 erdaldunak dira. Saltokietako solaskideei jarraiki, lanean dabiltzan 1.390 pertsonetatik %68 euskaldunak dira. %10 merkatarik ulertu arren nekez edo gutxi egiten dute euskaraz eta %22 erdaldunak dira. Merkatarien portzentaia oso antzekoak badira ere, merkatarien euskara gaitasun nabarmen egiten du behera ostalaritza sektorean.

Turismoa

- Tolosaldeako bezeroak galtzen joan dira azkeneko 10 urteetan, askotan mugikortasun arazoekin lotuta.

Ekoizpen egitura

- Lehen sektoreko jardunean errentagarritasun maila nahikoa lortzea arazoak ditu, gazteek, oro har, ez dute baserrian lan egiteko interesik erakusten eta belaunaldien arteko erreleboa gero eta zailagoa egiten da. Horrez gain, lursailak eskuratzeko zailtasunak ere agertzen dira.
- Tolosako Alde Zaharreko lokalen imagina degradatzen ari da eta lokaletan jarduerak ezartzeko dirulaguntzak falta dira.
- Hiruburuarekin duen lehiaz gain, zerbitzutik kanpoko eskaintza ez da dibertsifikatzen.

Herritarren lehen ekarpenak

“Herritarrek argi dute balio erantsiko eta kalitateko saltokiak baita jarduera ekonomikoak aurkitzen direla auzoan eta hauek duten balio soziala eta, kasu honetan, euskararen erabileran betetzen duten funtzioa baina asko sumatu da azken urteetan egon den beherakada, gehienbat erosteko formatuak aldatu bait dira eta oso zaila delako hauekin konpetitzea”



ZIRRIBORROA

Hasierako erronkak

1. **Garapen ekonomikoan estrategikoak eta menpekoak diren gaien eskaintza komertziala dibertsifikatzea eta kokatzea: merkataritza, azokak eta turismoa, beti ere, euskararen erabilera indartuz.**
2. **Garapen ekonomiko orekatua**
3. **Lokal hutsen dinamizazioa**
4. **Talde-lana, ekintzailtza eta lehiakortasuna, industriaren gakoak**
5. **Landa-eremu bizia eta lehen sektore indartsua**

Hasierako proposamenak

Azokak eta hurbileko merkataritza

- Merkataritzari sektorearen etorkizuna bermatzeko berau gaztetu eta modernizatzeko beharra dago, egungo errealitatera egokitzeko. Gune eta kale zaharkituetan denda berrien sorrera bultzatu eta daudenak sendotu herri bizitzeko.
- Merkatarien, Galtzaundiren, UEMAren, Merkatarari elkartearen eta Udalaren arteko harremana elikatzea eta erreferentzialtasuna sortzea.
- Kontzientziarazioa: ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren bitartez, besteak beste, pertsuasioa eta fidelizazioa landu behar dituzten guneak dira herriko saltokiak.
- Alde Zaharreko behe oinetan merkataritzaz gain bateragarri izan daitezkeen bestelako zein erabilera ezarri daitezkeen aztertzea (bizikletak gordetzeko lokalak, trastelekuak, beste saltokietako erakusleihoak, erakusketak, iragarkiak, helduak elkartzeko, lanak egiteko, liburutegiak...), auzoa biziberritzeko.

Turismoa

- Tolosarako nahi den turismo ereduaren inguruko hausnarketa sakona. Ekintza berritzaileak sustatu behar dira turismoa berpizteko eta, aldi berean, Tolosako bizitza sozial eta ekonomikoa indartzeko. Azokak eta tokiko produktuak, merkataritza, ostalaritza eta natur baldintzen arteko loturak indartu eta koordinatu behar dira.
- Ingurune naturalean jolas eta turismo erabilerak sortu, gozamina sustatzeko neurri bezela.


Ekoizpen egitura

- Auzoetako Merkataritza Plana: denda txikiei laguntzeko eta negozio berrien sorrera sustatzeko plana.
- Alde zahar osoan udalaren erosketa-orgak erabiltzea ahalbidetzea (alokairuko bizikletak bezela, esaterako).
- Udalerriko merkataritza eta jarduera desberdinak bultzatzeko, aparkalekuaren lehen ordua ez kobratzea.

Lotutako proiektuak

- 2024 • Tolosako hiri-ekonomia sustatzeko bi laguntza-lerro daude: Berriz Tolosa eta Ekin
- Kale eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko programa- Gune Biziak/Giro Kalea
- Euskadiko Jasangarritasun Turistikoko bigarren Lurralde Planeko proiektuak (Tolosaldea Garatzen)





ZIRRIBORROA

Kultura, kirola, hezkuntza eta euskara

Alderdi positiboak

Kultura

- Tolosa Kantari Tolosan egiten den kalejira herri-koia (hileko azken larunbatean).
- Tolosako erraldoi eta buruhandiak herriko jai eta kulturaren ikur, baita Tolosako txarangak ere.

Kirola

- Batel estropadak Oriá ibaian eta Triangulo plazan sokatira, aizkolaritza eta fardelen altxatzea. Presentzia gehien duena euskal pilota da Beotibar pilotalekuak pilota, zesta-punta eta pala partida profesionalak eta amateurak eskaintzen ditu.

Euskera

- Hizkuntza paisaia proiektua merkataritza eta honen komunikazioan duela 5 urtetik hona. Honek hizkuntza zerbitzua eskeintzen du: eragile desberdinek eskaintzen dituzten hizkuntza zerbitzuen eta laguntzen informazioa zabaldu da eta merkatariek egindako eskaerak bideratu dira (2023an 481 saltokietan egin da lan).
- Euskara sustatzeko hainbat elkarte eta erakunde: Galtzaundi euskara taldea, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea eta Euskararen Aholku Kontseilua.

Hezkuntza

- KZ gunea Rondila kalean finkatua: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia hobeto ezagutzeko laguntza. (aurrez aurreko eta urruneko ikastaroak, hitzaldiak, formakuntza eta tutoretzak).
- Topic (Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa) museo eta zentro internazionala Alde Zaharrean aurkitzen da.

Hobetu beharreko alderdiak

Kirola

- Eskola kirola: partehartzea gutxitzen doa eta horrekin batera eskola kirola eredu arriskuan dago.
- Kirol federatua: Emakumeen presentzia oraindik ere baxuagoa da. Egitura federatiboak lehiatik kanpo aisia, kirol osasuntsua, plazerra eta bestelako gaiak ikusarazi beharko lituzke.
- Ez dago kirol-bultzada nahikoa ibaiaren inguruan.

Euskera

- Euskareraren erdalduntzea Alde Zaharrean, herriko erdaldunena bait da. (Tolosarren %70 da euskalduna, %15 ia euskalduna eta %15 erdalduna).
- Euskararen erabilera datuak nahiko onak diren arren, badaude hainbat esparru non ahaleginak egin behar diren datuak hobetze aldera: zerbitzuak, lan-mundua, lanbide heziketa, eskola eremuan, baita etorkinekin ere.

Hezkuntza

- Ekipamenduak, eskualde mailan eskaintza zabalena duen udalerrria bada ere, egun dauden ekipamenduek eguneratzeko eta indartzeko premia adierazten baitute.
- Hirigune historikoak ez ditu betetzen legeak ezarritako estandarrak, ekipamendu aldetik. Baina erredakzio-taldearen iritziz, Tolosako Hirigune Historikoak ekipamendu-sare egokia eta nahikoa du, herrigune trinkoa izan arren, lehen mailako ekipamenduak baititu.
- Ekipamenduen ordutegien malgutasuna: Liburutegiaren itxiera eguardietan, baita kiroldegia ere igandeetan ere.

Herritarren lehen ekarpenak

“Alde zaharrak giro paregabea eskaintzen du, kultur, gastronomi eta gizarte esperientziez gozatzeko gune aproposa bihurtuz. Argi dago funtsezko papera betetzen duela Tolosako kultur agendan, baina askok honetarako baino ez, bisitatzen dugu Alde Zaharra, auzoa aisirako bakarrik erabiliz”.



ZIRRIBORROA

Hasierako erronkak

1. **Kultura-sorkuntza eta ekipamenduen hornikuntza, hurbiltasun jarraituko programazioarekin**
2. **Euskararen erabilera eta hizkuntza-paisaia**
3. **Kirol-ereduak eta balioen sustapena**
4. **Hezkuntza irekia eta taldean lan egitea**
5. **Elkarteen jarduera sustatzea**

Hasierako proposamenak

Kultura

- Kultura arloan sorkuntza eta ekintzailetasuna bultzatu, horretarako leku zehatz bat egokituz eta ekintzaile ezberdinen arteko harremanak sustatzen lagunduko lukeena.
- Kultura esparruan Tolosa erreferentzia gunea bilakatu delarik, indargune honek, Gipuzkoa mailan burutzen diren beste ekimenekin osagarri izan beharko luke eta sinergiak bilatu, bertako nortasuna mantenduz.

Hezkuntza

- Ikastetxeek irekiagoak izan eta herriari begira egon beharko lukete, zentro desberdinak elkarlanean arituz. Ikasketa ez-formalari garrantzi gehiago eman behar zaio eskolaz kanpoko ekintzak diseinatuz, online eskaintza areagotuz eta herriari (eta bailarari) begirako eskaintza osatuz.

Kirola

- Kirola balore positiboen transmisiorako tresna garrantzitsu gisa bultzatu, horretarako, gurasoen kontzientziazioa eta udalaren laguntza ezinbestekoa direlarik.

Euskara

- Euskarak espazio guztietan bere lekua izan behar du, lan munduan, espazio informaletan (gazteen aisialdian eta kirolean batez ere) eta baita espazio fisikoetan ere.
- Euskera ikasteko dirulaguntza aldatu (doakoa izatea), euskaltegi iturrizara pasa nahi da.

Lotutako proiektuak

- 2023 • Hizkuntza paisaian euskararen erabilera areagotzeko (urterokoa)
- Kultur ekipamenduen berrantolaketarako plangintza 2023-2031 (KRONOGRAMA)
- Kultur etxea (5-7 urte) berrikuntza integralari erabilera anitzeko ekipamendua sortuz
- 2024 • Iturritza (1-3 urte) eraikina birgaitu eta atxikituta duen bolumen gehigarria hartu euskaltegia kokatzeko
- Aranburu (7 urte). Artxiboaren bulegoa eta bestelako udal bulego/sailak kokatzeko espazioa egokitu
- Errota (7 urte). Erabiltzaile ezberdinentzako bilera gelak eta elkartegintzarako espazioak sortu
- Gorosabel (3-5 urte). "Artearen etxea" bilakatzeko eta Udaleko kultura saileko bulegoak kokatzeko
- Abastos (1-3 urte). Barne obra, espazioaren aprobeitxamendua, ikasketa gela eta topagunea kokatu





Ondarea eta paisaia

Alderdi positiboak

Ondarearen erabilera eta kontserbazioa

- Alde Zaharrean dauden 229 eraikinetatik babes mailaren bat duten eraikinak 70 dira (eraikinen % 30,56); oinarrizkoa, 56, ertaina, 8 eta berezia, 6. Eta babestutako elementuren bat duten eraikinak (53) ere kontuan hartuta, guztira 123 eraikin dira (Alde Zaharreko eraikinen % 53,70) eta nahiko egoera onean daude.
- Hamalau urte igaro dira katalogoa onartu zenetik, eta orduetik hona zenbait higiezin zerrendan sartu berri dira (2023), antzinatasunagatik edo udalerrriaren historiako beste garai batzuetako elementu adierazgarriak izateagatik.
- Hirigune Historikoan ehun urtetik gorako zenbait saltoki daude, adibidez: Gabirondo zapata denda (1878), Amiano jostailu denda (1885), Longaron arropa denda (1886), Orus drogeria (1908)...

Ondarea zabaltzea eta onestea

- Tolosaldeko turismo-bulegoak eigndako zerrendaren 10. postuan Tolosako Alde Zaharra dago, bisita gidatu bat barneratua duena (urte osoan asteartetik larunbatera 10:00etan eta 15:00etan).
- Eraikuntzetaz gain, oso erakargarriak eta xarma handia duten espazioak ditu; zerkautsia, berdura plaza kristalezko estrukturarekin, antzinako dendak...
- Ondare naturalerako erakarpen turistikoko kopuru handia dago eskualde osoan.

Hobetu beharreko alderdiak

Ondarearen erabilera eta kontserbazioa


- Hirigune Zaharraren bilbea ondare-elementu gisa kontserbatzea hondatu egiten da, bizi-tegi-eraikuntzaren kontserbazio txarrak eta jarduera ekonomikoaren galerak paisaiari eragindako puntu beltzengatik, eta errealitate hori bizilagunek aitortzen eta gaitzesten dute.
- Aintzinako saltoki batzuk, dagoeneko itxita daude ez delako belaunaldi erreleborik egon.

Ondarea zabaltzea eta onestea

- Alde Zaharrak duen balioa izan arren ez ditu paseatzeko aukerak eskeintzen, edota ibilbideak ondareaz gozatu ahal izateko.
- Ondarea eta nortasuna, oro har, errekonozimendu handiko gaia da, baina agerian uzten du balio hori gutxi ustiatzen dela Alde Zaharreko gunea dinamizatzeko baliabide gisa.
- Gune zaharraren ondareari buruzko gaur egungo zabalkundea, sustapena eta sentsibilizazioa urria da. Gutxi dira ondarea ezagutzeko ekintzak, jarduerak eta esku-hartzeak, eta, beraz, nortasuna eta harekiko harrotasun-sentimendua indartzeko.
- Turistek ez dute hirigune zaharreko ondare eraikia bisitatzen, seguru asko informazio eta erakargarritasunik ez dutelako.

Herritarren lehen ekarpenak

“Hainbat balio eta aukera dituen Alde Zaharrean, herritarrak, ez dute auzoa aprobetxatzen beharrezkoa den moduan, hainbat aukera galdu diren eanean, geroz eta gutxiago joaten bait dira. Adibidez, aspaldian errotan taberna bat zegoen, baina orain ez dira aurkitzen herritarrek gehiago parte hartu eta ondareaz gertutik gozatzeko aukerarik”.



ZIRRIBORROA

Hasierako erronkak

1. Ondare naturalaren eta kulturalaren erabilera eta babesa indartzea
2. Ondare materialaren eta ez-materialaren sustapena, sentsibilizazioa eta onestea
3. Hiri-paisaia birgaitzea eta balioestea

Hasierako proposamenak

Ondarearen erabilera eta kontserbazioa:


- Hirigune historikoko monumentu multzoaren proiektua. Izendapenari buruzko dekretua aldatzea (partzelak elkartzeko aukera, eraikuntza-baldintza zehatzak berrikustea, energia-eraginkortasuna (instalazio berriztagarriak) eta eraikinen babes-mailak berrikustea eta espazio publiko berriak sortzeko aukera.
- Hirigintza Historikoko Arkeologia eremua, monumentu-multzoaren dekretua aldatzea (GFaren aldeko udal-lizentzia lortzea).
- Udal eraikinak; Iturriza jauregia birgaitzea eta Oiarbide ostatuko eranskinak eraistea.
- Monumentu Multzo eta eraikinen ondare balioetan eraginik ez duten edota eragin txikien duten iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten sistemen azterketa (aerotermia, geotermia, hidrotermia, biomasa...sistemak).

Ondarea zabaltzea eta onestea

- Babestutako kultura-ondasun higiezinetan esku-hartzeko irizpideak Plan Berezian modu zehatzagoan jasotzeko, araudiotan aipatzen diren irizpide orokorrak zehaztu eta argitze aldera.
- Definitu babestutako eraikin edo elementu baten gaineko eskuhartzeak, araudi sektoriala betetzeko, birgaitze lanak egiteko, jarraitu beharreko irizpideak zeintzuk diren jakiteko.
- Elementu ez-egokiak dituzten babestutako eraikinak identifikatzea eta eraikin horiei buruzko informazio historikorik aurkitzen ez denean, zein irizpide eta baldintza bete behar diren jasotzea Plan Berezian.
- Hirigune Historikoan edozein babes maila duen eraikin baten gaineko esku-hartze obretarako proiektuarekin batera ondare azterketari buruzko dokumentazioa aurkezteko betebeharra.
- Alde Zaharreko lokal adierazgarri edo enblematikoak babestea. Horrekin batera, lokal horien eta elementu horien babeserako, proposatutakoari lotutako laguntza larriak ezarri.
- Berezko garrantzia hartzen duten ondare-aberastasunak hiri-diseinuko eta paisaia-diseinuko proiektuekin eta zabalkundeko eta sustapeneko udal-jarduerekin lotuko dituzten ibilbideak planteatzen dira.
- Santiago Bidea Tolosatik duen ibilbidearen nabarmentzea.

Lotutako proiektuak

- 2024 • Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen, Ingurumenaren, Mugikortasunaren eta Trantsizio Energetikoaren Arloak Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoaren handitzearen berrikuspena: balio arkitektonikoa duten higiezinak udalerrian oinarritzko babesak duten kultura-ondasun deklarazioa lortu nahi da, horiek desagertzea saihesteko babes eta esku-hartze irizpideak txertatuz.



ZIRRIBORROA



Parte-hartzea eta gobernantza

Alderdi positiboak

Parte-hartzea

- Kultur etxeko areto nagusia parte-hartze prozesuetarako erabiltzen da eta herriak erreferentzi du. Berritzearen ondorioz espazio komunitario bezela jokatzeko espero da.
- Batzar herritarrak (ongi izatea eta osasuna), zozketa bidez parte-hartzen dena, eta perfil guztiak ordezkatuak egotea bermatzen den (genero, ikasketa maila, adina...).
- Aurrekontu parte-hartzaileak, aurreko urtean 24 proposamenekin.

Gobernantza egitura

- Udal batzordea sortzeko konpromezua dago. Bertan konpromezu politiko eta inklusiboak izanik.

Gardentasuna eta zeharkatasuna

- Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun Ordenantza herritarrek udal bizitzan eta kudeaketan parte hartzeko moduak, bitartekoak, prozedurak eta bideak arautzen ditu.

Administrazio elektronikoa

- Iradokizunak, kejak... jasotezeko parte hartzen plataforma dago eskuragarri.
- Teknikariek, udaleko komunikazioa daraman enpresarekin (Adaki) harreman zuzena izateko plataforma dago.

Hobetu beharreko alderdiak

Parte-hartzea

- Auzo elkarteak seguruenik gehiengoak tolosarrak direla antzematen da, aniztasun gutxikoa.
- Jendea ez dago ohituta udaleko parteidetza sartzeko, pedagogia falta da.
- Nerabeen parte-hartzea, baita hauen aisialdiko nahien ezagutza falta da.
- Estructura intuitiboa duen parte-hartze prozesuetarako eremu bat dago udalaren web orrian (Aldunditik) baino erabilera gutxikoa.
- Urtero Alde Zaharrean lantzeko proposamenak aurrekontu parte-hartzaileetan.
- Fede gutxi dago auzotarren artean parte-hartze prozesuetan, ez dute sinisten.

Gobernantza egitura

- Udaltzaingoen ikuspen eta/edo irisgarritasun falta.
- Erretengibelen bulegoaren desagerpenarekin zuzeneko harreman edota herritarrekiko hurbiltasuna galdu egin da. ez dago herritarren arretarako bulegorik eskuragarri.

Gardentasuna eta zeharkatasuna

- Udaleko sailak hiru multzotan elkartzen dira baino ez dago espazio transbersalik talde ezberdineko teknikariak elkartzeko eta askotan ez dago ezagutzarik beste saileko proiektuen inguruan.

Herritarren lehen ekarpenak

“Gobernu zentzudun batek, politika publikoetan eraginkorra izan nahi badu, eta helburuak bete, komunitatearen parte-hartzea sustatu behar du eta, hala, komunitatearen konfiantza irabazi. Ekimen hauek sortzen dituzten dinamiketan denok irabazten dugu; bai politikariek, bai herritarrek”.



ZIRRIBORROA

Hasierako erronkak

1. Aurrekontu parte hartzaileak bisio estrategiko batetik ateratea
2. Konfiantza instituzionala
3. Gune politikoetan generoen estrategia zeharkakoa izatea
4. Arrakala digitala gainditzea

Hasierako proposamenak

Parte-hartzea

- Informazio puntua edo bulegoa, herritarrek dituzten beharrak herriko zerbitzuekin asetzeko eta bertatik zerbitzu eta abarretara bideratzea (webgunea eta arreta eskaintzeko telefono bat barne).
- Beste batzar batzuk egiteari begira, parte hartzen duten herritarrek jasotako informazioaren egokitzapena hobetzea, tokiko esperientzien lekukotza gehiago eta eztabaidatzeko denbora gehiago gehituz.
- Gazteek eta 3. adinakoek paper aktiboa izateko gizartean, euren parte hartzea bultzatu, belaunaldi ezberdinen arteko trukea sustatuz, baita, beste jatorrietako eta ezintasunak dituzten pertsonen integrazioa.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezagutaraztea beharrezkotzat jotzen da, parekidetasunaren eremuan kontzientzia pertsonala eta kolektiboa sustatzeko.
- Gizartearen balore partekatuek indartu eta elkartasunean oinarritutako gizartea sustatu eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak eta gazteen elkartegintza eta parte-hartzea bultzatu, espazio publikoaren berreskurapenari helduz.

Gardentasuna eta zeharkatasuna

- Udaleko barne mailako espazio bat non jarraipen bilerak egiteko eta ikusteko proiektuetan zein alorretik lagundu edo landu daitezkeen. Mekanismo batzuk definitu, ordezkari batzuk aukeratu.
- Mahai bat, bertan bil daitezzen; udal sailtako ordezkariak eta Tolosako elkarte guztietakoak, (aisialdi-talde eta guraso-elkarteetako ordezkariak, hezitzaileak, osakidetzakoak...) elkarlanean aritzeko.
- Auzoen maila sortu, auzoak gehiago nabarmendu ahal izateko (eguneroko gaiak eta gai estrategikoak).

Administrazio elektronikoa eta arrakala digitala

- Arrakala digitala gainditzeko pantaila interaktiboak intuitiboak jartzea bertan adieraziz Tolosan zer zerbitzu eta jarduera eskaintzen diren, baita gaitasun digitalak garatzeko egitasmoak.
- Interneta espazio publikoetan.

Lotutako proiektuak

2023	Nerabeen Parte Hartze Foroaren eraketa (Haurren Hiria egitasmoa)
	Jarraipen Batzordea – 2023ko iraila eta Gomendioen inplementazioari jarraipena - 2023ko urria
	Mugikortasun saila sorrera, baita mugikortasun mahaia sendotzea eta egungo egoeraren diagnostikoa.
2024	Herri behatokia, auzoen mailetatik, herritar hautatu batzuk, mantenu eta zerbitzu gaiak lantzeko
	Udaleko euskarri desberdinak sortu informazioa eskaintzeko, Diseinua eta espezifikazio teknikoak.
2025	Denok dugu boluntario bat barruan. Boluntariotza sustatzeko pizgarriak identifikatzea 2024-25
	Lehen Boluntariotza Azoka Antolatu 2025, elkartegintzaren aberasteasuna ikusarazteko.
2026	2026ean Esperientzia pilotua. Gazteen parte hartzea ardatz izango duen boluntariotzako esperientzia.
2027	Tolosako plangintza partekatua 2017-2027



ZIRRIBORROA



TOLOSA